

# **ESKOLA HUTSIK**

Egilea  
Antzerki egokitzapena  
Euskarazko bertsioa

**Thar Ben Jelloun**  
**Fernando Bernués eta Harkaitz Cano**  
**Harkaitz Cano eta Julia Marin**

Produkzioa

**Tentazioa S.A. (2005)**

## **ESKOLA HUTSIK**

Egilea	<b>Thar Ben Jelloun</b>
Antzerki egokitzapena	<b>Fernando Bernués eta Harkaitz Cano</b>
Euskarazko bertsoia	<b>Harkaitz Cano eta Julia Marin</b>
Antzezlea	<b>Carlos Nguema</b>
Perkusioa	<b>Luis Camino</b>
Musika	<b>Luis Camino</b>
Zuzendaritza	<b>Fernando Bernués</b>
Zuzendari teknikoa	<b>Edi Naudó</b>
Zuzendari eta produkzio laguntzailea	<b>Lucia Ocariz</b>
Eszenografia	<b>Fernando Bernués Edi Naudó</b>
Argiztapena	<b>Xabier Lozano</b>
Jantziak	<b>Lucía Ocariz</b>
Argi eta soinu teknikoa	<b>Josetxo Almandoz</b>
Argazkiak	<b>Yanira Calvo</b>
Bideoa	<b>Dani Bernués</b>
Ikus-entzunezko muntaia	<b>David Bernués</b>
Diseinu grafikoa	<b>Kristina???....</b>
<i>Off</i> ahotsa	<b>Abarchih Salem – Abajir Mohamed</b>
Produkzio exekutiboa	<b>Koro Etxeberria</b>

Produkzioa

**Tentazioa S.A.**

Banaketa

**Julio Perugorria Producciones**

**Tlf: 946 816 743 / 609 457 575**

**e-mail: [jproducciones@jproducciones.com](mailto:jproducciones@jproducciones.com)**

**[www.jproducciones.com](http://www.jproducciones.com)**

Esker ona

Angel Fernández (Izadi Artean)

Mohamed Arbia

Billabonako Udala

### *Eskola hutsik*

*(Leku txikia eta bildua. Lurra alfonbraz eta kolore beroak dituzten kuxinez betea dago, meskita baten barruko espazioa iradokiz. Distira eta estridentzia gehiegirik gabeko iluminazioa. Espezien lurrinak suma litezke airean. Diapositiba proiektore bat eta pantaila bat eszenatokian. Umeez zapatak erantzi dituzte aurrez eta kuxin eta alfonbren artean eseri dira. Aurkezlea sartzen da)*

**Aurkezlea.** Rachid Afrikan ezagutu nuen, duela urte pare bat Marokon izan nintzenean. Gure jeepa gasolarik gabe geratu zen basamortuaren erdian. Gasolina ekarri bitartean, Rachiden etxean jan eta lo egin genuen. Esan nion inoiz Euskal Herrira etortzen bazen, egiteko bisita, eta hara, zortea izan duzue: Rachid hemen da... Adi-adi entzun zer esaten dizuen: gauza interesgarri asko ditu guri kontatzeko.

### **Rachid.**

Kontatuko dizuedan istorioa Afrikako herrialde batean gertatu zen. Autobusez hiriburutik ordubetera dagoen herrirka txiki batean. Herrirkak ez dauka izenik, “Herria” esaten diote, besterik gabe. Nik berriz, “Ezereza” esaten diot, hain dago hutsik eta hainbeste hauts altxatzen du haizeak putz egiten duen bakoitzean. Ezereza da nire herria. Eta ezerezaren erdian, urik eta argindarrik iristen ez den etxetxo inguratuta, zuhaitz handi-handi bat altxatzen da, pago bat; Hach Babak dioenez, herriko buruzagiak, hirurehun eta berrogeita hamar urte ditu. Nola zenbatzen dituen? Oso erraz: enbor bakoitzak berrogeita hamar urte ditu. Berrogeita hamar bider zazpi, hirurehun eta berrogeita hamar. Eta falta diren biak? Horiek dira lurrerantz okertuta hazten den adar batek dituen urteak. Hach Babak dio adar hori ere enbor bihurtuko dela denborarekin.

Euria egiten duenean, eta hori gutxitan izaten da, lurrak gorri kolorea hartzen du. Etxeetako hormak harriekin eta lastoarekin landutako lur-masa buztintsua dira. Herrirka honetan ez dago errepiderik, ezta bide-seinalerik ere. Animaliak eta gizakiak dira oinez joan ahala bidexkak egiten dituztenak. Zerua zuri egoten da. Euria prestatzen ari delako dela diote. Baina ez da tantarik ere erortzen. Beste zerbait prestatzen ariko da, orduan, zerua. Baina zer? Hori ez dakit. Diotenez, gortina zuri horren atzean, umeen ametsak eta gure aitona-amonen oroitzapenak ezkututzen dira, eta gauez elkartu egiten dira.

Hainbeste dira zeruari buruzko esamesak, zeruak barre egiten du gure herriko biztanleen lepotik. Nola? Bere lainoak beste leku batzuetan hustuz eta gure zelaiak ureztatu gabe utziz. Zerua handiegia da eta ez ditu entzuten jendearen erreguak. Nik ere hitz egiten nion batzuetan, xuxurlaka, berari sekretu bat kontatzen ari banintz bezala. Baina ez zidan erantzuten. Orain badakit zeruak ez duela hitzik egiten eta ez zaizkiola behartsuak gustatzen.

“Inori ez zaizkio behartsuak gustatzen”, esan zidan behin aitonak. Zer esan nahi ote du ba behartsu izateak?, galdetu nion nik. Hori jakiteko ez da irudimen handirik behar. Nahikoa da guri arreta pixka bat jartzea, gure aurpegiei begiratzea, eta ikustea gure begi argirik gabeak, gure zango biluziak eta gure esku zikinak. Ohitu gara ezer ez edukitzera, eta, hala ere, ez desesperatzera. Behartsu izatea da zortetik ez edukitzea, edo hobeto esanda, zure besoak, zure eskuak besterik ez izatea, eta begiak erne edukitzea horizonteari adi-adi begira. Han denek begiratzen diote horizonteari. Denek uste dute salbatzailea handik iritsiko dela. Zeren antza ote du ba salbatzaile batek? Gamelu talde bat izan daiteke, herri osoarentzat jan-edanak dakartzana? Edo hegazti harrapakari bat izango da, bere atzaparrekin lainoei harramazka egiten diena, gero euria egiteko? Edo profeta begi-urdin bat ote da, gure miseria konpontzeko prest dagoena zintzoak baldin bagara? Edo *jeep* batean etorriko ote da profeta, basamortuaren erdian gasolinarik gabe geratzen diren *jeep* horietako batean? (*begia keinatzen dio aurkezleari*) Nolakoa da profeta bat? Ze aurpegi dauka? Bada profetarik zuen eskolako lagunen artean? Ni behintzat ez naiz inolaz ere profeta bat.

Rachid naiz, eskola-maisua. Tea gustatzen zaizue?

Eskola meskita barruan dago. Edo hobeto esanda, meskita erabiltzen dugu eskolatzat. Oinetakoak erantzi beharra dago sartzeko. Zuek dagoeneko egin duzue. Ba, han igualtsu da; baina gehienek ez dute batere oinetakorik. Batzuetan, pentsatzen dut nire artean gizon-emakumeek ez ote duten erabiltzen jainkoa beren utzikeriak tapatzeko. Bitxia da: orduan eta behartsuago, orduan eta laguntza gehiago eskatzen zaio jainkoari. Edo nik behintzat horrela ikusi eta ikasi ditut gauzak gure herrian. Nire gurasoak ere oso pobreak dira. Otoitzean pasatzen dute eguna. Nik uste dut otoitzek ezer gutxitarako balio dutela. Baina isildu egiten naiz: ez ditut gurasoak haserrarazi nahi.

Han badira eskola baino gauza garrantzitsuagoak, meskita esate baterako, edo adinekoek egiten duten berriketa luzea zuhaitzaren itzalean. Ondo ezagutzen dut nik herri hau. Ikusmena galtzear izan nintzen, lurraren erruz. Begietan sartzen da, eta hautsak trakoma sor dezake, oso gaitz

kutsakorra. Hirian sendatu ninduten eta bertan taxi-gidaria den nire osaba bati esker, eskolara joan ahal izan nuen. Hirira aldegin nuen egunean, niri bedeinkapena emateko, gure amak intsentsua erre zuen; eta nik zazpi bider pasa behar izan nuen txingar gorriaren gainetik... Nik ez dut ohitura horietan sinesten, baina ez nion amari atsekaberik sortu nahi. Familia osoa etorria zen zorte ona opatzera. “*Inshala, inshala...* Baldinbaitere ondo joango ahal zaizu dena, zortea alde izango ahal duzu, baldinbaitere, oxala-*inshala...*”. Edonork esango zuen atzerrira nindoala, osaba Beydyé bezala. Frantziara joan zen eta orain hiri handi bateko kaleak garbitzen ditu. Nolako den hiri handi hori? Auskalo. Zoriontsu ote da osaba Beydé? Arrastorik ere ez. Behin bakarrik itzuli da herrira eta lo pasa zituen oporrak.

Issa da nire beste osaba, taxi-gidaria. Ba, osaba Issaren emazteari ez zitzaion batere gustatu ni haien etxean geratzea. Rachid esan beharrean, *Prrrrousi* deitzen zidan, “errea” asko markatuz, horixe zen-eta bere era *procès* esateko. *Procès* da, ba, taxi-gidari batek trafiko arau bat hausten duenean jartzen zaion isuna edo multa. Eta ni horixe nintzen nire osabaren emaztearentzat: isun bat, zigor bat. Hori ez dago ondo. Isun-aurpegia al daukat nik akaso? Ez profetarena, ezta isunarena ere! Baina nik ez nuen txintik ere esaten. Amak hirira joan aurretik ondo leziatu ninduen: “Edukatua izan, ondo portatu, ez zure burua nabarmendu, lagundu etxeko lanak egiten, eta zure osaba Issaren emazteari ez eman erantzun zakarrik...”. Ulertzekoa zen amaren kezka. Azken batean, hiriko jendea ez da herrietakoa bezain abegikorra.

Hirian, eskolara joaten nintzen, han lezioak ikasi eta gauez kafetxe batean lan egiten nuen, zerbitzari. Lehen kikarakada botatzea da ohitura, tea garbitzeko. Gose nintzenean, bezeroek mahaietan utzitako ogitartekoen sobrak jaten nituen.

Ostiraletan, *hammam*-era joaten nintzen osabarekin, bainu-etxe publikoetara. Ikaragarri gustatzen zitzaizkidan bainu-etxe publikoak: ur-tantak hormetan behera nola erortzen ziren ikustea; txorrotada batzuk sabaitik jausten ziren eta nire garondoan behera irristatzen ziren gero; hango lurruna eta gizonen garrasi ozenak beste gizonkote indartsu batzuek masajeak ematen zizkieten bitartean... Herrian ez genuen *hammam*-ik. Badakizue zer egiten nuen nik? Putzutik hurbil garbitzen nintzen, baldekada bat ur hartuta.

Eskolan, bost kontinenteetako historia eta geografia ikasi nituen, baita abentura- eta maitasun-liburuak irakurri ere. Algebra eta geometria ere ikasi nituen. Gero, osabak, irakasle-eskola batean matrikulatu ninduen, irakasten ikasteko.

Hiru urte geroago, prest nengoen maisu izateko. Traje europar bat erosi nuen eta zapata-pare bat min ematen zidana; eta betaurrekoak ere

aldatu nituen. Hiritik alde egin aurretik, osabaren emazteari zetazko soineko bat oparitu nion. Bua!, ikaragarri gustatu zitzaion: handik aurrera, ez zen desatsegina nirekin, eta ez zidan *prrrroussii* deitzen.

Geroztik, ni naiz Ezerezaren maisu berria. Tira, egia esan, ni naiz lehena: ni baino lehen ez da beste maisurik izan herrian. Gutun bat daukat, postu honetarako izendatu nautela esaten duena. Baina ez dakit zenbat diru irabaziko dudan ere. Bueno, diruak ez nau kezkatzen.

Herrialde guztietan bezala, eskolako lehen eguna festa-eguna izaten da gurean ere. Haurrak aztoratuta dabilta, eta oihuka, eta klariona-puskak elkarri tiraka. Ondo pasatzen dute. Haientzat eskola da jolas-ordua bezala, abentura bat, eguneroko bizitza aspergarritik ihes egiteko. Bai: etortzen dira eskolara maisu berriak ze aurpegi duen ikustera. Nirea gustatuko ote zaie? Esan nahi dut: jatorra naizela irudituko ote zaie? Ni ez naiz gogorregia, baina ezta bigunegia ere. Tira, konturatu beharra daukat ume haientzat eskola dela, ba, urtean behin herrira etortzen den zirkua bezalakoa. Ze... Zer da eskola gosea daukan ume batentzat? Nola azaldu ume bati ikasi egin behar duela gosea pasatzeari utzi nahi badio?

Opari batzuk banatu nizkien umei: Frantziatik eta Belgikatik bidalitako koadernoak eta arkatzak. Hogeita hamar neska-mutil dira guztira. Geografiako lehen ikasgaia: koaderno hartzen dutenean, Frantziarekin akordatuko dira; eta, arkatza hartzen badute, Belgikarekin. Nik esaten diet Belgika eta Frantzia elkarren ondoan daudela. Eta haiek erantzuten didate badakitela eta horregatik gordetzen dituztela arkatza eta koaderno leku berean. Azkar ikasten dute.

Baina nire ikasleak ez dira ez Frantzian eta ez Belgikan esertzen: lurrean esertzen dira. Baina lasai egon: esan didate mahaiak eta aulkiak hilabete honetan helduko direla. Kanadarrek oparitutako omen dizkigute; hain zuzen ere, Quebec-eko eskualdekoek. Hori bai, momentuz, ahal dugun bezala moldatu beharko dugu. Eta arbela hiriko arotzik aberatsenak oparitutako digu. Haren zain gaude. Baina arbela ez da bere kasa oinez etorriko. Haren bila joan eta guk ekarri beharko dugu dendariaren kamionetako sabaian lotuta; eta gainera, kamioneta hamabostean behin bakarrik pasatzen da herritik. A, mapa-mundi hau nire lagun Luisek oparitu digu. Ze jatorra den, ezta?

Ali, Mohamed, Chaiban, Yasmin, Zoraida, Nahim, Laila, Tahaman, Dabul, Brahim, Amira, Safwani, Abdulhasib, Reihama... Zerrenda irakurtzen dudanean, umeak barrez lehertzen dira. Grazia egiten die beren izenak bata bestearen segidan entzuteak. Gustatzen zaie barre egitea.

Bizitzan arazo asko dituzten arren, ume alaiak dira. Bigarren eskola-egunean, ohartu naiz bi ikasle falta direla. Gaixorik ote daude? Ala piper egin dute? Erantzunik ez. Hogeita hamarretik bi falta dira, ez da beste munduko gauza. Bihar etorriko dira. Baina hurrengo egunean ez dira etortzen. Eta ez hori bakarrik: beste hiru ikasle gehiago falta dira. Kezkatzen hasi naiz. Zer egin? Zuzendariarekin mintzatu? Ez dago zuzendaririk. Ni naiz maisua, zuzendaria, garbiketa egiten duena eta zaindaria. Umeek ez dute txintik ere esaten. Hogeita hamarretik bost ikasle faltatzeak ez dauka hainbeste garrantzirik, baina kezkarria iruditzen zait. Ez da gurasorik etortzen azalpenak ematera. Libretan apuntatuko ditut falta direnen izenak. Agian, ezinikusi pixka bat hartu didate. Nik ere banion ezinikusi pixka bat matematika-irakasleari, baina horregatik ez nuen piper egiten haren eskoletan.

Eskolak ematen jarraitzen dut, nahiz eta barruan korapilo bat sentitu. Bost ikasle ez, orain hamar dira falta direnak, eta geroxeago hamabost. Non ote daude? Ikasleei galdetzen diedanean, barre egin eta edozer gauza erantzuten didate:

*(ikasleak imitatuz)* “Gaixorik daude. Kakalarria daukate, jauna. Atzerrira joan dira; bai, haiek dira etorkin berriak. Putzu batera erori ziren: haietatik bi putzu batera erori ziren eta beste bost haiei laguntzera joan ziren, eta bost gehi bi zazpi dira, eta zazpi horietatik bakar bat ere ez zen putzutik atera. Merkatura joan ziren ganadua saltzera, ez dagoelako batere belarririk arkumeei jaten emateko...”

Erabaki dut Hach Baba buruzagiari dena kontatzea. Ilunabarrean, harengana hurbildu naiz. “Esna hadi, behingoz. Kuxidade horrek ez dik eskola-izenik merezi. Ez daukak arbel ziztrin bat ere. Eta aulkiak eta mahaiak izatea espero baduk, hago zain eta jango duk me, koittadu horrek! Ze uste duk, hiriko jendea akordatuko dela herrixka galdu honekin? Inozoa haiz. Begiraiek animalia gajo horiei. Euri-tanta bakar bat ere ez. Heriotza hemen inguruan zebilek.”

Nik badakit Hach Babak eta gainerakoek nahiago zutela hiriburutik beste norbait bidali izan balute, gosearen kontra borrokatzeko; edota makinaren bat, ura lurpetik ateratzeko. Baina ni maisua naiz! Eta ni izendatu ninduten eskola hartan maisu izateko. Zer egin nezakeen?

Zer egin? Bizikleta hartu, eta norantza jakinik gabe bueltatxo bat emango dut, umeen bila joateko. Haizeak hondarra altxatzen du lurretik. Begiak hautsez beteak dauzkat, eta horrek gogorarazten dit txikitan gutxi falta izan zitzaidala itsu geratzeko eta zeru beltz bat besterik ez ikusteko. Bat-batean, hamar edo hamaika urteko artzain batek horizontean dagoen etxe zuri bat seinalatzen dit hatzarekin.

“Ez naiz inoiz bertan izan.” “Ni ere gustura joango nintzateke Etxe Zurira. Baina ez daukat ardiak nork zaindu. Zainduko dizkidazu zuk?”



“Zer da etxe zuri hori?”

“Ba, leihorik ez duen etxe handi baten antzekoa da. Harrizko lau horma eta txapazko sabai bat: meskita baino handiagoa da”.

Zerbaitek esaten dit etxe zuri hori ez dela parte onekoa.

“Zer egiten du jendeak han barruan?”

“Dirua irabazi”.

“Dirua? Nola baina?”

“Ba, hori ez dakit. Baina hara joaten diren guztiak diruarekin bueltatzen dira. Eta ni ere egunen batean, hara joango naiz goizean goiz, eta ilunabarrean diruarekin bueltatuko naiz etxera. Eta aurrerantzean ez naiz artzain izango. Eta hirira joango naiz. Han denetik lortzen da diruarekin. Hemen, berriz, haizea eta hautsa, ez daukagu besterik. Ardi bakoitzari izen bana jarri diot. Potoloena Etxe Zuria deitzen da, eta beltz-beltza da!”.

Etxe Zuriko atea itxita dago. Astindu-pare batekin zabaldu dut. Zaindari batek mehatxu egin dit makila batekin. Baina nik zigarro batzuk eman dizkiot, eta berak sartzen utzi dit. Nire aurrean, ehun ume inguru daude sala handi batean, larru-puska zuriak eta beltzak elkarri josten. Atzealdean, hamar bat neska oso gazte daude, josteko makinarekin. Nire ikasleak futbol-baloiak eta zapatilak egiten ari dira! Hormetan iragarki handi batzuk daude zintzilik: atleta beltz altu bat, korrika hasteko prest. Lantegiaren sinboloa trazo zuri bat da hondo beltzaren gainean; azentu bat ematen du. Zer ote da trazo zuri hori? Erauzitako hanka bat? Olatu bat? Bururik gabeko hegazti bat? Auskalo. Iragarkian esaldi hau irakurri dut: “Hirugarren milurtekorako kirol-zapatilak. Garaipenaren espiritua”. Baina ze garaipen da hori? Haurrak lanean jartzen dituen? Eskolatik urruntzen dituen esklabo bihurtzeko? Eta hori dena pobreak direlako eta ezin dutelako beren burua defendatu.

Umeez azkar eta isilik lan egiten dute, burumakur. Nagusi atzerritar batek umeez egindako piezak ikuskatu eta kartoizko kaxetan sartzen ditu. Ni harengana inguratu naiz. Eta bera harritu egin da: “Hemen sobran zaude. Zure ikasleek nahiago dute nire tailerra zure eskola baino: hemen behintzat dirua irabazten dute”.

Ezin dut sinetsi: nik mehatxu egiten diot salatu egingo dudala. Eta berak barre egiten du: “A, bai? Non zaudela uste duzu, Suedian?”. Zuzenbidea eta legeak geografiaren gainetik daude. Legez kontrakoa da ume bat lanean jartzea, berdin Suedian, Malin edo Marokon.

Eta haren erantzuna argia da: “Hemendik alde egiten ez baduzu, ja-ta burua txikituko dizut. Niri ez zaizkit sermoiak gustatzen. Esaiezu umeei zurekin joateko, eta ikusiko duzu: ez da bakar bat ere mugituko bere lekutik”.

Ikasleak ez dira ausartu niri begietara so egitera.

Beldurragatik, agian. Edo lotsagatik. Haiekin mintzatzen saiatu naiz, baina nagusi atzerritarrak aterantz bultzatu nau. Eta kanpoan nagoela, ez dakit zer egin nire haserrearekin.

Berriro herrian, ezin ditut burutik kendu makurtuta lan egiten duten burutxo horiek, esklabo bihurtutako gorputz horiek. Arratsaldean, Hach Babari kontatzen diot. Eta berak esaten dit burua astinduz:

“Lurra egarri duk, ganadua makal zagok, zeruak zuri jarraitzen dik, eta lainoek ez ditek euririk ekarri. Ume bakoitzak dolar bat ekartzen dik egunero. Baduk zerbait. Eskolak hortxe jarraituko dik, ez duk mugituko. Gauzak hobetzen direnean, hasiko haiz berriz ere eskolak ematen”. Hach Babaren ustez, historia, geografia, matematika, zientzia, teknika edo medikuntza ikastea inportantea da, baina guretzat, momentu honetan, luxua omen da hori.

Eta nik ezin dut borrokatu zero zuriaren kontra. Ezin dut borrokatu etxe zuriaren kontra. Egunaren bukaeran, eskolatik pasatzen naiz, eta lurreko alfonbrei begiratzen diet, eta horma pitzatuei; eta haurren oihuak imajinatzen ditut, eta gero... isiltasuna. Zer egin daiteke eskola huts batean? Ez dago norekin mintzatu. Umeen zain gera naiteke hemen. Astebetez. Hilabetez. Luzeago, agian. Irakurri egin dezaket zain nagoen bitartean. Edo hirira joan eta aulkiak eta mahaiak ekarri. Baina ez daukat dirurik.

Pakistango ume esklabo harena etorri zitzaidan burura: kateak zeuzkan orkatiletan; eta eskuetako hatzak erabat itxuragabetuta, milaka eta milaka korapilo egiteagatik Ekialdeko alfonbra-lantegi batean. Egunkari frantses batean irakurri nuen. Iqbal Masih zuen izena, hamabi urte zituen eta aurpegi bizia. Berak salatu zituen lan-baldintza negargarri haiek mundu osoaren aurrean, esanez “Etzazue erosi umeen odola!”. Ez dakit ze ordutan joango diren lantegira nire ikasleak. Baina Ekialdeko alfonbrak egiten zituztenek goizeko lauretan jaiki eta hamabi orduz lan egiten zuten, kateatuta. Orain nik oihu egin nahi nuke: “Etzazue erosi umeen izerdia!”. Edo bestela: “Etzaitzete ibili odolez zikindutako zapatilekin!”. Otoitz baten eran errepikatu nuen ume haren izena: Iqbal Masih, Iqbal Masih... Lau urte besterik ez zituen gurasoek alfonbra-lantegi bati saldu ziotenean... Gauaren erdian joaten zen lantegira, eta eguzkia sartu ondoren itzultzen zen etxera. Debekaturik zuen lantokitik altxatzea, hitz egitea, bizitzea. Baina, egun batean, gizon on batek, bere herriko militante batek, lagundu egin zion. Eta, orduan, Iqbal milioika ume esklaboren ahots bihurtu zen. Pixkanaka-pixkanaka, mundu osoak ezagutu zuen haren borroka. Aita Santuarekin hitz egin zuen, Estatu Batuetako presidentearekin... Orrialde asko bete zituen egunkarietan. Sinbolo bihurtu zen. Eta, orduan, lantegietako batzuk itxi behar izan zituzten.

Bai, Iqbal txikia ospetsu eta arriskutsu bihurtu zen. Beraz, isilarazi beharra zegoen, kosta ahala kosta: ez zezala gehiago hitz egin; nagusi esklabistak dirua galtzen ari zirelako haren ausardiaren eta haren amorruren erruz. Eta, orduan, nagusi haiek elkartu eta hiltzaile bat kontratatu zuten. Bai, ume bat hiltzera ausartu ziren beren negozioetan traba egiten zielako. Bala bat buruan. Hamabi urte besterik ez zituela, Iqbal Masih heroia Historian sartu zen. Hurrengo egunean, ikasleak eskolara itzultzen baziren behintzat, Iqbal Masihren istorioa kontatuko nien: haren bizitza, haren sufrimendua, haren ausardia eta haren heriotza. Dena dela, Iqbal Masihk bizirik jarraitzen du injustiziaren kontra borrokatzen duten guztien bihotzetan.

Nire gauzak jaso nituen: hiztegia eta liburuak. Gela apur bat txukundu eta atera egin nintzen, atzera begiratu gabe. Miseria ez da saihestu ezin daitekeen zoritxarra. Inon ez zegoen idatzita gure herriak, Ezerezaren herriak, herri madarikatua eta hutsa izaten jarraitu behar zuenik: aurrerapenik gabe, urik gabe, eskolarik gabe, etorkizunik gabe.

Borroka egin beharra dago zoritxarraren kontra... Baina bakarrik nago.

Yezza amona itsuak kontsolatu ninduen. Yezzak, beregana hurbiltzen sumatu ninduenean, eskua luzatu zidan. Eta haren ondoan eseri nintzen. “Rachid maitea, gizakiak dezepzionatu egiten zaitu, halaxe da. Neronek ere, hainbeste negar egin nuen txikitan, ikusmena galdu bainuen. Gizon-emakumeak halakoak dira, eta inork ez du errurik. Fabrikak erakarri egiten ditu umeak, zuk zer eskainiko diezu dirua baino erakargarriago?”

Pentsakor geratu nintzen. Bizikleta hartu nuen hirira itzultzeko. Eta, bat-batean, ikasleak topatu nituen lantegitik bueltan: lasai zihoazen, taldean, oinez, berriketan. Ni ikustean, inguratu egin ninduten, ez zidaten aurrera jarraitzen utzi. Eta jiratu behar izan nuen. Haien jokaerak hunkitu egin ninduen. Aldatu egin ziren! Agian, pentsarazi egin nien lantegira egindako bisitarekin.

Handik egun batzuetara, artzainak atea jo zuen.

“Gure aita sendatu egin da; orduan, berak zainduko ditu ardiak, eta ni eskolara itzuliko naiz”.

“Baina ez duzu lantegira joan nahi?”

“Ez, hobeto pentsatu dut: izarren izenak jakin nahi ditut, irakurtzen eta idazten ikasi, kontuak egiten, kamioiak gidatzen... batez ere, kamioiak gidatzen ikasi nahi dut...”

“Baina nik ezin dut eskola ireki ikasle bakarrarekin...”

“Ez, ez naiz bakarra izango: Dialo besamotza ere etorriko da, fabrika ez dute onartu; eta Moh, hautsak begi bat gaixotu ziona, bera ez zen saiatu ere egin etxe zurira joaten; Suleiman ere hor dago, nagusi atzerritarrak kalera bota du, azkar lan egiten ez duelako; eta Felix, inorekin

hitz egiten ez duena eta eskorpioiekin jolasean ibiltzen dena; eta oasitik beste bi haur etorriko dira, gure eskolaren entzutea dutelako eta nahiago dutelako hona etorri; eta Modibo, eskola gustatzen zaion potoloa, eta haren arreba bikia, Aicha; horiek beti elkarrekin dabilta. Denok joaten bagara, eskola bat egin dezakezu! Eta nahi baduzu, nire ardi beltza ere ekarriko dut: Etxe Zuria izena duena!”

Esan nion ez zela beharrezkoa, baina irribarre egin nuen pentsatuz polita litzatekeela Etxe Zuria, ardi beltz hura ere, eskolara etortzea.

**(gorantz begiratzeko du)** Eta polita litzateke laino beltz batek zeru zuri hau zeharkatuko balu, behingoz, eta euri pixka bat botako balu herri honen gainean. Baina ez dago ardi beltzik zeruan.

Bi urte geroago, maisu izaten jarraitzen dut Ezerezaren herrian. Eskola, dagoeneko, ez dago meskitan. Benetako eskola bat eraiki dugu, iturritik gertu. Denek lagundu zuten pixka bat: ikasleek eta gurasoek. Hilabeteko lana izan zen. Umeak poz-pez zeuden saltsaren erdian. Aurreneko urtean baino ikasle gehiago ditut orain. Lantegia ez dute itxi: oraindik ere umeak erabiltzen ditu lanerako. Baina nik ez diot uko egin esklabutzaren kontra borroka egiteari. Burugogorra naiz; eta, trabak izan arren, aurrera jarraitzen dut.

Ongi! Aurten modu ezberdin bat aukeratu dut eskolak hasteko: elkarrizketan jardungo dugu, gure agureek egiten duten bezala zuhaitz azpian. Ikasleei galdetu diet zer den haientzat munduko gauzarik txarrena. Zerk sortzen dituen zoritxarrak, zerk izorratzen duen jendea eta zerk bihurtzen dituen gizakiak basati eta arriskutsu... Hemen dauzkate ikasleen erantzunak. Euskarara itzuli ditut zuek ulertzeko. Gustatuko litzaidake zuek nire ikasleen erantzunak ahots goraz irakurtzea. **(ikusleentako batek papertxo bat hartzen du)** Irakurri, garbi eta ozen, mesedez. Munduko gauzarik txarrena da...

**Ikaslea1. (baxuegi esaten du) Heriotza.**

**Rachid.** Ozenago, mesedez!

**Ikaslea1. (indar gehiagorik oihukatzen du) Heriotza!**

**Rachid.** Askoz hobeto orain! Horrela Aicha ematen duzu, bera da eskolan oihu gehien egiten duena... Baina ez, heriotza edozein bizitzaren amaiera naturala besterik ez da. Heriotza iristen denean, gu joan egiten gara. Eta hemen jarraitzen badugu, heriotza oraindik iritsi ez den seinale. Heriotza ez da ez ona eta ez txarra. Heriotza heriotza da, eta kito. **(papeletak banatuz jarraitzen du)**. Munduko gauzarik txarrena da...

**Ikaslea2. Gosea!**

**Rachid.** Bai, baina ez da saihestu ezin daitekeen zerbait. Gauza asko egin daitezke gosearen kontra. Adibidez, gure herrian, lehortea dago, eta herrialde aberatsek artoa eta arroza bidaltzen dituzte hiriburura. Baina

laguntza hori galdu egiten da bidean, gizakia berekoia eta krudela delako. Ea, orduan, zer da munduko gauzarik txarrena?

***Ikaslea3. Hondar-ekaitza!***

***Rachid.*** Ez, babestu gaitezke hondar-ekaitzaren kontra, eta gainera, ekaitz guztiak, lehenago edo geroago, bukatu egiten dira...

***Ikaslea4. Gorrotoa!***

***Rachid.*** Ez da nahikoa: egon daiteke gorrotoa, baina horrek ez dakar derrigorrez gerra. Soldadu guztiek ez dute etsaia gorroto. Gorrotoa sentimendu gaiztoa da, min egiten du askotan, maitasunaren beste alde da.

***Ikaslea5. Esklabutza!***

***Rachid.*** Bai, munduko gauzarik txarrenak baimendu egiten du esklabutza, bere barruan hartzen du. Esklabutza aspaldi debekatu zuten munduan, baina hala ere... Gogoan duzue zapatilen lantegia, ezta? Animo, gertu zaudete...

***Ikaslea6. Lapurreta!***

***Rachid.*** Bizio bat da, gaixotasun baten antzekoa da, baina senda daiteke...

***Ikaslea7. Ergelkeria!***

***Rachid.*** Ez. Norbait izan daiteke ergela, eta hala ere, ez du zertan gaiztoa izan... (*pausa, puntu solemnea*) Munduko gauzarik txarrena ez da heriotza, ez da gosea, ezta esklabutza ere... Baizik eta ezjakintasuna.

Ezjakintasunak jakin-mina oztopatzen du, gizakiak banantzen ditu, mugak sortu eta hondamendiak eragiten ditu. Bere buruari galderarik egiten ez dionak, gauza guztiez seguru dagoela uste duelako, erantzunak besterik ez dauka, oskol bat bezala ixten da bere baitara, fanatiko hutsa da, eta bere egiak bakarrik onartzen ditu: uko egiten dio kanpotik datorren guztiari. Zenbaitek baloreen alde borrokatzen dute, ideia eskuzabal eta miresgarrien alde. Beste batzuek, berriz, ideia txikiak eta ziztrinak bilatzen dituzte. Horrela jokatzen duena asto baldar bilakatzen da, eta bide berbera egiten du beti.

Gogoratu zer esan zuen Yezza amonaitsuak: “Gizon-emakumeak halakoak dira, eta inork ez du errurik. Gizakiak dezepzionatu egiten zaitu”.

Yezzak hainbeste negar egin zuen txikitan, ikusmena galdu baitzuen. Baina alferrik egingo dugu negar. Begiraiozue zero zuriari: ez dago lainorik. Ez dabil jakin-minaren haizerik. Eta jakin-mina eta lainoak falta badira, ez dago euririk. Zeruak ez du gugatik negar egingo. Ez zeruak eta ez beste inork. Inork ez ditu entzungo gure erreguak. Gu gara geure euria. Ez ahaztu.

*(Basamortuko haizea entzuten da. Azken diapositiba: arbel beltz baten argazkia da. Arbel beltzean, norbaitek laino zuri bat margotu du: ardi baten itxura duen lainoa. Urrunean, trumoi hotsa. Rachidek eskua irekitzen du: euria ari du)*